

TOKIKO ENPRESEK LAN-MERKATU ARRUNTEAN KONTRATAZIOAK GAUZATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAN ESKABIDEA EGITEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK, DONOSTIAKO UDALERRIAN 2017. URTEAN ENPLEGUA SORTZERA BIDERATUAK, 2018KO ENPLEGUAREN SUSTAPENERAKO TOKIKO EKINTZEN LAGUNTZEN DEIALDIAREN BAITAN SARTZEN DIRENAK (2018KO EKAINAREN 13KO EHAO-EAN ARGITARATUTAKO EBAZPENA)

ATARIKOA

Donostiako Udaletxeko udal sozietate den Donostiako Sustapena SAK, hiriko garapen ekonomikoaren arduradun gisa, tokiko egitura-ekonomikoa babesteko politika eta jardunak sustatzea du helburu, jasangarritasun- eta berrikuntza-irizpideetan oinarrituta, egituraren lehiakortasuna mantendu eta hobetzeko gero eta polarizatuagoa eta globalagoa den merkatu baten aurrean, enpresa-egitura lehiakor eta jasangarri baten alde eginez.

Enplegu-sorrera ardatz estrategikoa da hiriko eta inguruko garapen-ekonomikorako.

Testuinguru horretan sortu da **Donostia/San Sebastian UP! 2017 Garapen Ekonomikorako Plan** berria. . Hori dela eta, Donostia UP! 2018 planak epe ertain eta luzean aplikatzeko hainbat neurri abian jarri ditu berriro, giza kapitala, enpresa lehiakortasuna eta lurralde kohesioko kontzeptuen inguru murgiltzen den estrategia baten barruan. Planak jarraitzen du talentua erakartzearen eta atxikitzearen eta berrikuntza sustatzearen alde egindako apustuarekin, eta beste bi kontzeptu berezki jotzen ditu: enpleguaren kalitatea eta berdintasuna..

Enplegurik gabe dauden pertsonen lan-munduan berriz sartzeko dauzkaten zailtasunak hobetzeko helburuarekin gauzatzen da plana, enplegua lortzeko orduan kalteberatasun eta desabantaila handienak dauzkaten pertsonen arreta berezia eskainita.

Hortaz, egun hirian dagoen langabezia-testuingurua aintzat hartuta **kontratazioa suspertzeko** beharrezkoak diren estrategiak indartzea beharrezkotzat jotzen du Donostiako Sustapenak, aipaturiko kolektiboena bereziki. Horretarako, pertsonen kontrataziora bideratzen den deialdi hau abiatu du.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA HELBURUA

Laguntza hauen helburua da Lanbide-EEZan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda dauden hiriko pertsonen laneratzea sustatzea, kolektibo desberdinei zuzendutako laguntza-mota desberdinen bitartez jarduera-zentroa Donostian daukaten enpresetan lanean has daitezen.

- a) **Kolektibo hauen parte diren enplegurik gabeko pertsonen kontrataziora bideratutako laguntzak:**
- DSBE prestazioa jasotzen duten titularrak edo onuradunak.
 - 35 urtetik beherako pertsonak.
 - Luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 18 hiletan, gutxienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezia 360 egun eman dutenak.
 - 55 urtetik gorako pertsonak.
- b) **Kolektiboen parte ez diren enplegurik gabeko pertsonen kontrataziora bideratutako laguntzak.**
- c) **Emakumeak, kopurua gizonetzkoena baino %50etik beherakoa den esparruetan, kontratatzeari zuzenduriko laguntzak, Lanbide – Enpleguaren Euskal Zerbitzuak izena emandakoak, 1.c. artikuluan tipifikatuta.(*)**

Helburu horretarako laguntza jakinak abiatuko dira, lanaldiaren eta kontratuaren iraupen desberdinen arabera zenbatekoekin, 4. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoetako sektore guztietara bideratuak.

2. ARTIKULUA BALIABIDE EKONOMIKOAK.

Donostiako Sustapenak **502.950€** bideratuko ditu oinarri hauetan araututako laguntzetara, Laguntza hauek aldi berean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2018ko Enplegu-sustapenerako tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren baitan finantzatzen ditu, eta 2018ko ekainaren 13an onartu zituen.

Kopuru horrek, Donostiako Sustapenak hala erabakiz gero, aldaketak jasan ahal izango ditu.

3. ARTIKULUA ONURADUNAK

Laguntzaren **onuradun** izango dira laguntza ematea oinarri hartutako jarduera burutuko dutenak, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran daudenak, beti ere Oinarri hauetako baldintzak eta berariaz laguntza mota bakoitzeko baldintzak betetzen baditu.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, nazionalak edo atzerritarak, eta baita aurreko izaerarik ez duten taldeak ere, Oinarri hauetan ezarritako baldintzetan lehiatzen direnetan, araudi juridikoari jarraituz egoki osatu baldin badira. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan definitutako ondare-sozietateak deialdi honetatik kanpo geldituko dira.

Laguntzak eskatzeko beharrezko baldintzak zehaztuko dira Oinarri hauetan, eta baita baldintza horiek ziurtatzeko modua ere. Edozein kasutan, Diru-laguntzen lege orokorreko (hemendik aurrera DLLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikatuko dena.

Indarrean dauden xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekiko betebeharren eta zerga-betebeharren betetzea egunean ez duten pertsona fisiko edo juridikoei ezingo zaie diru-laguntzarik eman.

Diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko aukeraren galera ebazpen tinko baten bidez zigortu zaien pertsona fisiko edo juridikoei ezingo zaie diru-laguntzarik eman, ezta hartarako ezgaituak izan diren debeku legalen baten mende dauden pertsoneri ere, Gizon eta Emakumezkoen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken seigarren xedapenean jasotzen den sexu arrazoiengatik egindako bazterketak burutu izanagatik zigortuak izan direnak barne.

Donostiako Udaletxearekin edota Donostiako Sustapenarekin zorren bat duten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezingo zaie diru-laguntzarik eman.

Aurrez emandako laguntzen itzultze oso edo partziala burutzeke daukaten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezingo zaie diru-laguntza eman, itzuli beharreko kopurua ordaindu izana ziurtatu ez badute.

4. ARTIKULUA DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hurrengoak dira deialdi honetan parte hartu ahal izateko onuradunek bete beharko dituzten baldintzak:

- Pertsona kontratatuaren lan-zentroa Donostian kokatua egotea.
- Pertsona juridiko baten kasuan, segidan zerrendatuko diren baldintza guztiak betetzea:
 - 1) Bere aktiboak ezingo du 10 milioi euro baino gehiagokoa izan, edo, operazioen bolumenari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoan definitzen den bezala, ezingo ditu 10 milioi euroak gainditu.
 - 2) Batez beste ezingo ditu 50 langile baino gehiago izan. Langileen batezbestekoa kalkulatzeko, urteko lanaldi osoko langileak hartuko dira kontutan. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioan zenbatuko dira.
 - 3) Aurreko 1 eta 2. puntuetan aurreikusitako baldintzetako bat betetzen ez duten enpresen aldetik %25 edo gehiagoan zuzen edo zeharka parte hartuak ez egotea.

Entitatea sozietate-talde baten parte denean, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluekin bat etorrita, aurreko 1 eta 2 zenbakietan adierazitako tamainak talde horretako partaide diren entitate guztiei egingo die erreferentzia.

Aktibo osoa eta lanen bolumena zenbatzeko helburuetarako, Merkataritzako Kodearen 46. artikuluan eta berau garatzeko arauetan aurreikusitakoarekin bat datozen ezabaketak hartuko dira kontuan.

Adierazitakoari kalterik egin gabe, hurrengoek ezin izango dute onuradun izan:

- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- Honako hauekiko lotura edo %25etik gorako partaidetza duten erakundeak: Sektore publikoaren barneko erakundeak (Sektore Publikoko Kontratuen inguruko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikulua barneko erakundeak; horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), irabazi asmorik gabeko Fundazioek eta Elkaratek, ondare-elkaratek eta/edo Elkargo Profesionalek.

5. ARTIKULUA DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hiriko langabetuen kontratazioak, pertsona horien **laneratzea sustatzera** bideratuak, jarduera-zentroa Donostian daukaten enpresetan lanean has daitezten.

Kontratazio horiek diruz laguntzera bideratzen diren baliabide ekonomikoak honela banatzen dira:

- 1) **Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden kolektiboen parte diren pertsonen kontrataziorako laguntzak, 1.a artikuluan sailkatuak:**
 - 1.a) **4.500 euroko gehienezko laguntza** 6 hilabete edo gehiagoko eta %50eko edo gehiagoko lanaldiko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 2
 - 1.b) **6.750 euroko gehienezko laguntza** 4.5 hilabete edo gehiagoko eta lanaldi osoko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 2
 - 1.c) **3.375 euroko gehienezko laguntza** 4.5 hilabete edo gehiagoko eta %50eko edo gehiagoko lanaldiko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 3
 - 1.d) **4.500 euroko gehienezko laguntza** 3 hilabete edo gehiagoko eta lanaldi osoko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 6

Kasu horietan, laguntzaren amaierako zenbatekoa ezingo da kontraturiko pertsonen soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen %100a baino handiagoa izan, kontratuaren amaiera dela eta ematen diren kalte-ordainak barne.

2) Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden kolektiboen parte ez diren pertsonen kontrataziorako laguntzak, 1.b artikuluan sailkatuak:

- 2.a) **6.000 euroko gehienezko laguntza** 6 hilabete edo gehiagoko eta lanaldi osoko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 22.
- 2.b) **3.000 euroko gehienezko laguntza** 6 hilabete edo gehiagoko eta %50eko edo gehiagoko lanaldiko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 23
- 2.c) **4.500 euroko gehienezko laguntza** 4.5 hilabete edo gehiagoko eta lanaldi osoko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 14
- 2.d) **2.250 euroko gehienezko laguntza** 4.5 hilabete edo gehiagoko eta %50eko edo gehiagoko lanaldiko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 22
- 2.e) **3.000 euroko gehienezko laguntza** 3 hilabete edo gehiagoko eta lanaldi osoko kontratuentzat. Laguntza-kopuru maximoa: 32

Kasu horietan, laguntzaren amaierako zenbatekoa ezingo da kontraturiko pertsonen soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen %75a baino handiagoa izan, kontratuaren amaiera dela eta ematen diren kalte-ordainak barne.

3)-Emakumeak, kopurua gizonekoena baino %50etik beherakoa den esparruetan, kontratatzeari zuzenduriko laguntzak, Lanbide – Enpleguaren Euskal Zerbitzuak izena emandakoak, 1.c. artikuluan tipifikatuta.(*)

- 3.a)- **4.950 euroko gehienezko laguntza** 4.5 hilabete edo hortik gorako iraupeneko kontratuertarako, lanaldi osoan. Laguntzen gehienezko kopurua: 2
- 3.b) **2.475 euroko gehienezko laguntza** 4.5 hilabete edo hortik gorako iraupeneko kontratuertarako eta %50 edo hortik gorako lanaldian. Laguntzen gehienezko kopurua: 3
- 3.c) **3.300 euroko gehienezko laguntza** 3 hilabete edo hortik gorako iraupeneko kontratuertarako, lanaldi osoan. Laguntzen gehienezko kopurua: 5

(*)Emakumeen kopurua gizonena baino %50 gutxiago den esparru profesionalak aipatzen dituen taula honako helbidean dago argitaratuta <http://www.lanbide.euskadi.eus>

Kasu horietan, laguntzaren amaierako zenbatekoa ezingo da kontrataturiko pertsonen soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen %75a baino handiagoa izan, kontratuaren amaiera dela eta ematen diren kalte-ordainak barne.

Erakunde eskatzaileak zein laguntza-mota eskatzen duen zehaztu beharko du eskabidean. Hautaturiko modalitaterako zehazturiko diru-laguntzen kopuru maximoa emanda badago, eta kontratazioak beste laguntza-mota bat eskatzeko beharrezko baldintzak betetzen baditu, beste modalitate horri dagokion laguntza esleituko du Sustapenak. Laguntzaren amaierako justifikazioa Donostiako Sustapenak emandako modalitatera baldintzatua geldituko da.

Era berean, Donostiako Sustapenak aurrekontu gabe geratu diren diru-laguntza eskaerekin zerrenda bat osatu ahal izango du erreserba gisa, aurrerago aurrekontu erabilgarririk izanez gero onartuak izan daitezzen.

Tokiko enplegu-sustapenerako ekintzetarako Lanbide-EEZeko laguntzen deialdian adierazitako baldintzak betetzeko xedearekin, diruz lagundutako kontratazio osoen %40a gutxienez emakumezkoei bideratua egon beharko da.

Lan-kontratuek honako gutxienezko baldintzak bete beharko dituzte:

- Kontrataturiko pertsonak **langabetuak izan beharko dute eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa egon beharko dute izena emanda.** Izen-emate eguna lan-harremana hasi baino lehenagokoa izan beharko du. Langabezian dauden pertsonak ezingo dira alta emanda egon, ez Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean ezta Langile Autonomoen Erregimen Berezia ere, gutxienez lan-harremana hasi baino aurreko egunetik.
- Kontratazio premiek bat egitea 5. artikuluan aipatutako modalitateetako batekin eta lan harremanaren hasiera data **2018ko ekainaren 21 eta 2018ko abenduaren 31 artekoa izatea.**
- Kontratatu beharreko pertsonak **Donostian erroldatuta egotea**, gutxienez lan-harremana hasi aurreko egunetik. Erroldatzea lan-harremana hasi baino egun bat lehenagotik egin beharko da gutxienez, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan erakunde kontratugilearekin (pertsona onuraduna) edo beste edozein erakunderekin artikulua horretan ezarritakoaren arabera lotetsita aurkitzen den edozein pertsona fisikorena ez den helbide batean.
- Diruz lagundu nahi den lanpostuak eta enpresaren jarduerak harreman zuzena izan beharko dute.
- Aipatutako kontratazioak 5. artikuluan deskribatutako modalitateetako batean egin beharko dira, hilabete-kopuruaren eta lanaldiaren portzentajearen gutxienekoak betez. Kontratazioa epe horien baitan eta lanordu horiekin mantendu beharko da.

Lan-harremana diru-laguntzaren epea baino lehen bukatzen bada, atzera botako da laguntza, lan-harremana kausa objektiboengatik edo enplegatzaileari ez dagozkion kausengatik bukatutzat eman denean salbu; kasu horietan murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, lan-kontratuaren iraupen efektiboaren proportzioa aintzat hartuta.

- Kontratazioek enpresan dauden langileen batezbesteko osoarekiko enplegu-sorkuntza garbia eragin beharko dute, diruz lagunduko den kontratua beteko duen pertsona lanean hasi baino aurreko 3 hilabetetako.

Kalkulu hori gauzatzeko, diru-laguntza eskatzen den kontratazioaren egunean alta egoeran dagoen langileen batezbestekoa kontratazio-eguna baino lehenagoko hiru hilabeteetako alta egoeran dauden langileen batezbestekoa baino handiagoa izatea izango da kontuan. Baldintza hori egiaztatu ahal izateko, Gizarte Segurantzak igorritako "Alta emanda dauden langileen batez bestekoaren txosten" bi entregatu beharko dira; bat, kontratuaren eguna baino lehenagoko hiru hilabetei dagokiona eta, beste bat, diru-laguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa.

Adibidez: Hauek izango lirateke 2018ko urriaren 15ean gauzatuko litzatekeen kontratu baten kasuan langileen hazkunde garbia egiaztatzeke entregatu beharko liratekeen dokumentuak:

2018ko uztailaren 15etik 2018ko urriaren 14ra arteko epean alta egoeran dauden langileen batez bestekoaren txostena.

2018ko urriaren 15etik 2018ko urriaren 15era arteko epean alta egoeran dauden langileen batez bestekoaren txostena.

- Aipatutako kolektiboetako parte diren langabetuei egiten zaizkien kontratazioek tipologia hauetako bat bete beharko dute:
 - RGI hartzaileak edo onuradunak (Diru-sarreraren Bermeko Errenta).
 - Kontratu datan 35 urte baino gutxiago dituzten pertsonak.
 - Iraupen luzeko langabetuak: Iraupen luzeko langabetutzat jotzen dira Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan, “enplegu eskatzaile” gisa kontratazioaren aurretiko 540 egunez izena emanda egon diren langabetuak, baldin eta, aldi horretan gutxienez 360 egunez langabetu gisa egon badira.
 - Kontratu datan 55 urte baino gehiago dituzten pertsonak.

Ez dira diruz laguntzeko gastutzat hartuko honako kontratazio hauek:

- Lanaldiaren %50a baino gutxiagoko kontratazioak.
- Lanaldia aldatu duten kontratuak, hasieran kontratatutako lanaldia handitzeko egindako aldaketak direnean izan ezik.
- 5. artikuluan deskribatutako kontratu-epeak baino laburragoak edo kontratu-iraupenak baino txikiagoak diren kontratazioak.

- Ez da diruz lagunduko Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan lotetsita aurkitzen den edozein pertsona fisikoren kontratazioa.
- Onuradunaren ezkontidearen edo izatezko bikotearen kontratazioa ere ezingo da diruz lagundu, izatezko bikoteak maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoarekin bat osatu diren kasuetan, eta ezta onuradunaren aurreko ahaide baten, ondorengo baten edo bigarren graduako alboko odol-ahaide baten kontratazioa ere, dena delakoa jatorria (senidetasuna, odolkidetasuna, kidetasuna, izatezko bikotearen ondoriozko harremana edo adopzioa). Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan onuradunari lotetsita dauden pertsona fisikoen kontratazioa ere ezingo da diruz lagundu.
- Gainera, kontratazio-egunaren aurretiko 12 hilabeteetan enpresa berean izaera mugagabez zerbitzuak eman dituzten pertsonen kontratazioa ez da diruz lagunduko, eta ezta Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko 2/2014 Foru Arauan (2014ko urtarrilak 17) ezarritako baldintzen arabera, eta beti ere ondare-sozietateak ez direnean, enpresa eskatzailearekin lotutako pertsona fisiko edo entitateen kontratazioa ere.
- Tokiko enpresek lan-merkatu arruntean kontratazioak gauzatzeko laguntzen programa barruan izan diren deialdietan, bai deialdi honetan edo aurrekoetan, enpresa berean pertsona bera kontratatzeagatik dagoeneko diru-laguntza jaso duten kontratazioak.
- Ez dira laguntzaren eskabidearen ondoren gauzatutako kontratuen luzapenak onartuko.
- Ez da onartuko kontratuak batzea. Diru-laguntza jasoko duen laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- Ez dira formakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratazioak onartuko.
- Ez dira langileen kontrataziorako aldi baterako lana eskaintzen duten enpresetako kontratuak onartuko, aldi baterako beste enpresa bati lagatzeko eginak.

Gehienez, onuradun bakoitzeko, bi laguntza eman ahal izango dira osotara.

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, gauzatutako kontratazioaren amaierako justifikazioaren ondoren.

6. ARTIKULUA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN ALDIBEREKOTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak izango helburu berdinarekin emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, izan Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu nazionalakoak. Gizarte-segurantzako hobariak salbuespen gisa joko dira eta laguntzak horiekin bateragarriak izan daitezke.

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordeko 1407/2013 Araudian (EB) ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dituzte. Araudia 2013ko abenduaren 24ean argitaratu zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta minimis laguntzen EBko Funtzionamendurako Tratatuaren 107 eta 108. artikuluen aplikazioari egiten die erreferentzia.

7.ARTIKULUA ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabideak aurkezteko epea **2019ko urtarrilaren 14an** hasi eta laguntza hauetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte luzatuko da, Oinarri hauetako 2. artikuluan jasotzen denarekin bat etorrira (agortuz gero, Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko da agorpen hori), edo, dagokion kasuan, deialdia itxi arte, **2018ko otsailaren 8an** (Donostiako Sustapenak, funts ekonomikorik eskuragarri izanez gero, epe hau luzatzea erabaki dezake).

Modu telematikoan edo presentzian aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

a./ **Eskabide telematikoak** Donostiako Sustapenaren webgunearen bitartez egingo dira (www.fomentosansebastian.eus) www.fomentosansebastian.eus), bertan ezarritako eskakizunekin bat etorrira.

b./ **Eskaera presentzialak** Donostiako Sustapeneko Informaziorako Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira, Erregina Erregentea 8 - Victoria Eugenia Antzokia - 20.003 Donostia helbidean, Donostiako Sustapeneko webgunean erreferentzia egiten den arreta publikorako ordutegian.

Eskabide presentzialak paperezko euskarrian aurkeztu beharko dira.

Edozein informazio edo kontsultarako deitu 943482800 telefono-zenbakira edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbidera, "KONTRATAZIO DIRU-LAGUNTZAK 2018" erreferentzia adierazita.

Diru-laguntza hau jasotzeko interesa duten enpresa edo entitateek hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

ERANSKINAK:

1. "Eskabidea" eranskina.
2. "Banku-datuen" eranskina, dagokion banku-entitateak sinatua.
3. "Kontratazioaren datuak" eranskina.

ENPRESAKO DOKUMENTUAK:

4. **Eskatzailearen NANA**, pertsona fisikoa baldin bada.

5. Pertsona juridikoa baldin bada, eskatzailearen **IFKaren kopia eta**, bere kasuan, sinatzailearen NANA.
6. Pertsona juridikoa baldin bada, eraketaren **eskritura** edo dokumentuak, Estatutuak edo fundazio-akta, non jarduna arautzen duten arauak agertuko diren, behar bezala inskribatuak, bere kasuan, dagokion Erregistro Publikoan, pertsona juridiko motaren arabera. Izaera juridiko propiorik ez duten Sozietate Zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigitaturiko kontratu pribatua erantsi beharko da.
7. Gipuzkoako Foru Aldundiak **emandako jarduera ekonomiko-historikoen** dokumentu eguneratua.
8. **Zerga-betebeharren betetzea** egunean izatearen egiaztagiria.
9. **Gizarte-segurantzako betebeharren betetzea** egunean izatearen egiaztagiria.
10. Donostiako Udaletxearen ziurtagiria, zeinaren bitartez laguntzaren eskatzaileak udaletxearekin inongo zorrik ez duela ziurtatuko den, edo, besterik ezean, berariazko baimena ("Ardurazko adierazpena" eranskinean), Donostiako Sustapenak informazio hori zuzenean Donostiako Udaletxetik lor dezan. (Eskabidea eranskina)
11. Gizarte Segurantzak igorritako txostena, alta emanda dauden langileen batez bestekoarena, kontratazio-eguna baino lehenagoko hiru hilabeteetako.
12. Gizarte Segurantzak igorritako txostena, alta emanda dauden langileen batez bestekoarena, kontratazio-egun berberekoa.

KONTRATAZIOARI LOTURIKO DOKUMENTUAK:

13. **Lan-kontratuaren kopia**, non lanpostua, iraupena, lanaldia eta lan-zentroa adieraziko diren.
14. **Lan-kontratuaren komunikazioa**, non betetzen den lana adierazi den.
15. Kontraturiko pertsonaren **Nortasun Agiri Nazionala** edo Atzerritarren Identifikaziorako Zenbakiaren kopia.
16. "**Inskripzio-epeen txostena**" dokumentua, Lanbidek sinatua kontratazioaren hasiera-data baino beranduagoko datarekin.
17. **Langilearen lan-bizitza osoa**, Gizarte Segurantzak igorria, diru-laguntza eskatzen den kontratuaren hasiera-data baino beranduagoko datarekin.
18. "**Erroldatze-ziurtagiria**", Donostiako Udaletxeak igorria, kontratuari lotutako pertsonaren kontratazio-egunaren ondorengo datarekin; edo, bestela, baimena, Donostiako Sustapenak informazio hori zuzenean lor dezan.
19. Kontratazioa giza-talde hauetako batean dagoen pertsonari egiten bazaie: Diru-sarreraren Bermeko Errentaren titularrak edo onuradunak, 35 urtetik beherakoak eta Lanbide-SVE zerbitzuan gutxienez 12 hilabetez izena emanda egon direnak,

kontratazioa baino aurretiko 18 hilabetetan eta 55 urtetik gorakoak. Horiek guztiak aipatutako egoera ziurtatzen duen dokumentu askia aurkeztu beharko dute:

- *Diru-sarreraren Bermeko Errentaren titularrentzat edo onuradunentzat: Lanbidek igorritako ziurtagiria.*
- *Iraupen luzeko langabetuentzat: "Inskripzio aldiei buruzko txostena eta azken 18 hilabeteotako egoera adierazten duen lan bizitzaren txostena.*
- *35 urtetik beharagoentzat eta 55 urtetik goragoentzat, NAN, AIZ edo pasaportearen zenbakia.*

Onuradunak egindako ardurazko deklarazio guztien egiazkotasunaren gaineko arduraren hartzen du, eta baita aurkeztu den gainontzeko dokumentazioaren gainekoa ere bai.

8. ARTIKULUA ESKABIDEETAKO AKATSAK KONPONTZEA

Eskabidea egiten den momentuan eskaera-inprimakia erantsi beharko da, Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Behin dokumentazio osoa berrikusita eskabidea behar bezala beteta ez dagoela egiaztatzen baldin bada, edo diruz lagun daitezkeen jardueretarako eskatutako dokumentazioa ez badute jasotzen, pertsona edo entitate eskatzaileari horren berri emango zaio, hamar egun baliodunetan akatsa konpondu edo beharrezko dokumentazioak aurkez ditzan, adieraziz, gainera, eskaeratik kanpo geldituko dela hala egiten ez badu, beste inongo tramiterik gabe eta horren inguruan erabakia ezarriz.

Dokumentazioa telematikoki edo presentzialki aurkeztu ahal izango da, eskabidea egiteko erabili zen bide berdina erabilita. Ez dira onartuko helbide elektronikoki bidez jasotako justifikazioak.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak berariaz emandako erabaki bidez egingo da.

9. ARTIKULUA TRAMITAZIOA ETA LAGUNTZEN EBAZPENEA

Eskaerak erregistro-ordenaren arabera ebaluatu eta erabakiko dira, laguntza honetarako bideratu diren baliabide ekonomikoak agortu arte, Oinarri hauetako 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea bi hilabetekoa izango da, eskaeraren erregistro-datatik hasita. Ez dira epe horren baitan hartuko dokumentazio administratiboa konpontzeko epeak. Ezarritako epean laguntza emateko ebazpena ez emateak ez du esan nahiko laguntza eman denik.

Eskaeraren ebazpenaren momentuan, Donostiako Sustapenak eskabidearekin batera aurkeztu beharrezko derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskabideari erants

dakiokeen beste edozein dokumentazio, eta beharrezko ez dena Oinarri hauetan ebazteko, ez da laguntza emateko berrikusi beharko.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak berariaz emandako erabaki bidez egingo da.

Ebazpenak pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta argitaratu egingo dira onuradunen zerrendak.

Deialdi honi dagozkion notifikazioak bitarteko elektronikoz emango dira, eskabidean emandako helbide elektronikoaren bitartez. Onuradunak Donostiako Sustapenarekin komunikatzeko bidea aldatu ahal izango du. Horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko du Donostiako Sustapeneko Informaziorako Zerbitzu Zentraletan, Erregina Erregentea 8, Victoria Eugenia Antzokia, 20.003 Donostia helbidean, deialdi honi dagozkion notifikazioak posta arruntez jasotzeko eskatuz. Eskaeran adierazitako enpresaren helbidea ez badator notifikazioentzako helbidearekin bat, adierazi egin beharko da zein den.

Emandako ebazpenarekin ados ez etorri gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, ebazpena eman eta hilabeteko epean gehienez. Kasu horietan, Donostiako Sustapenak zehaztutakoaren arabera jokatu da, bi aldeak, dagokien kasuan, Donostiako Epaitegi eta Auzitegietako eskumenaren mende jarriko direlarik.

Era berean, Donostiako Sustapenak aurrekontu gabe geratu diren diru-laguntza eskaerekin zerrenda bat osatu ahal izango du erreserba gisa, aurrerago aurrekontu erabilgarririk izanez gero onartuak izan daitezzen.

10. ARTIKULUA JUSTIFIKAZIOA ETA LAGUNTZEN ORDAINKETA

Diruz lagun daitezkeen gastu gisa onartuko dira, izaera orokorrez, inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jarduerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epean egindakoak.

Diruz lagun daitezkeen gastuei DLLOaren 31. artikulua aplikatuko zaie.

Laguntzen abonua ordainketa bakarrean egingo da, justifikazioaren ondoren.

Amaierako justifikazioa aurkezteko gehienezko epea 60 egun naturalekoa izango da, diru-laguntza xede duen epea bukatu ostean kontatzen hasita.

Epe hau betetzen ez baldin bada, laguntza ez onartutzat emango da.

Hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du onuradunak:

10.1 Lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua, laguntza eskatzen den epe osoan zehar pertsona enpresan kontratatua egon dela ziurtatzen duena.

10.2 Kontraturiko pertsonaren Datuen Txostena Kotizaziorako - Besteren Konturako Langileak, justifikazio-denboraldia hartzen duena.

10.3 Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duena.

10.4 Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duena.

10.5 Donostiako Udaletxearen ziurtagiri eguneratua, zeinaren bitartez laguntzaren eskatzaileak udaletxearekin inongo zorrik ez duela ziurtatuko den. ("Justifikazioa" eranskinean)

10.6 Momentura arte helburu berbera betetzeko asmoz beste entitate pribatu edo publikoei eskatu edo beroriek emandako gainontzeko laguntzen zinpeko deklarazioa. ("Aitorpen Arduraduna" eranskinean)

10.7 Diruz lagundutako epean zeharreko kostu efektiboa justifikatzen duen finantza-memoria (soldata eta gizarte-aseguruak). ("Justifikazioa" eranskina)

10.8 Soldaten, gizarte-aseguruaren eta dagozkien ordainketen kopiak. (Langileak sinatutako nominak ordainketa-justifikazio gisa hartuko dira).

Dokumentazioa telematikoki edo presentzialki aurkeztu ahal izango da, eskabidea egiteko erabili zen bide berdina erabilita. Ez dira onartuko helbide elektroniko bidez jasotako justifikazioak.

11. ARTIKULUA PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradun suertatuko diren enpresa eta erakundeek DLLOaren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak onartuko dituzte, helburu hauetarako aplikaziozkoak jotzen direnak berariaz, honako betebeharrari erreferentzia eginez (adieraztekoak eta ez mugatzaileak direnak):

- Ekarpena diruz lagundutako jarduerak burutzera bideratzea.
- Diruz lagun daitezkeen gastuen justifikaziorako beharrezko dokumentazioa aurkeztea, ezarritako modu eta epeekin bat etorriz.
- Jasotako laguntzen aplikazioko justifikazio-dokumentuak gordetzea, frogatu edo ikuskatu ahal izango direlako, eta, edozein kasutan, aplikaziozko araudian ezarritako epean zehar.
- Kontularitzako liburuak modu egokian izatea, beharrezko denetan.
- Gizarte-segurantzako betebeharraren eta zerga-betebeharraren egunean egotea.
- Donostiako Sustapenari jakinaraztea laguntzak emateko kontuan izandako edozein baldintzen (subjektiboak edo objektiboak) aldaketa.
- Donostiako Sustapenak eskatutako informazio guztia erraztea, emandako diru-laguntzei dagozkien funtzioak betetzeko.

- Donostiako Sustapenari jakinaraztea helburu berdinerako jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste baliabide batzuk.
- Dagokion kasuan Donostiako Sustapenarekin kolaboratzea, burutu ditzakeen finantza-kontrolerako eta frogatzerako jardunetan, bere esku jarriz eskatutako dokumentazio edo informazio guztia.
- Laguntza honetako jarduerak burutzeko beharrezko diren lizentzia eta baimenak izatea.
- Oinarri hauetako 3 eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- Erakundeetako hautaketa- eta/edo formakuntza-prozesuetan erabilitako dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntza ez sexista darabilteela bermatzea, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak erabiltzen ez direla bermatzea, eta berdintasun-balioetan, presentzia orekatuan, aniztasunean, erantzunkidetasunean, eta genero-rol eta -identitateen aniztasunean oinarritutako irudia sustatzea.
- EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, sare sozialak, e-mail bidalketak, megafonia, etab.), promozio eta hedapenerako materialen edizioan, hizkuntza antolaturiko jardunaldi eta ekitaldietan, etab.
- Entitate eskatzaileek Donostiako Udaletxeko Euskara zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango dute testuak itzuli eta zuzentzeko, beti ere zerbitzuaren eskakizun eta baldintzak betetzen baldin badira.
- Entitate eskatzaileek euren jarduera zehatzen bidez Lanbide – Enpleguko Euskal Zerbitzuaren ekarpena ezagutzera eman beharko diete onuradunei eta hiritarrei, oro har.

12. ARTIKULUA ITZULTZEA

Onuradunak, jasotako zenbatekoa eta diruaren interes legala –emandako zenbatekoen ordainketa egindako momentutik aurrera– itzuli beharko ditu honako kasuetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusten diren betebeharrak behin eta berriz eta modu larrian bete ez baditu.
- Zenbatekoaren helburua justifikatzeko beharra bete ez badu, Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan, eta baita justifikazio nahikorik eman ez badu.
- Onuradunaren jardueraren inguruan praktika daitezkeen frogapen edo ikuskaritzako jardunen aurrean erresistentzia, aitzakia, eragozpena edo ezezkoa erakutsi badu, eta baita kontularitzako, erregistroko edo dokumentuen kontserbazioen inguruko beharrak bete ez baditu ere, horren ondorioz ezin denean jasotako laguntzek sortutako enplegua, finantzaturiko jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu berdinerako diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen aldiberekotasuna ziurtatu, edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik jasoak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak.

- Jarduera gainfintzatua dagoenean, gastatu ez den zenbatekoa edo gainfintzatu dena.

Segidan deskribatuko diren baldintzetan egingo da zenbatekoaren itzultzea, Donostiako Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako baldintzetako bat ematen dela ziurtatutakoan eta onuradunari jakinarazpena helarazitakoan:

Itzultzea laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, Donostiako Sustapenak burofax bidez onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzultze-kausetako baten bat jakinarazten dion egunetik kontatzen hasita.

Aurrez aipaturiko itzultze-kausaren bat gertatzen baldin bada, onuradunak galdu egingo du, bere kasuan, kobratu gabe gelditu litekeen kopururik kobratzeko eskubidea.

13. ARTIKULUA ALDI BEREKO FINANTZAKETA

Laguntza hauek aldi berean finantzatzen ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2017ko Enplegu-sustapenerako tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren baitan. 2018ko ekainaren 13an onartu zituen laguntza horiek Lanbideko Administrazio Kontseiluak eta 2018ko ekainaren 20an argitaratu ziren EHAOean.

14. ARTIKULUA DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko (IPDB)15/1999 Lege Organikoaren 5.1. artikuluan ezartzen denaren arabera, Oinarri honetako laguntza arautuak eskatzen dituztenei jakinarazten zaie, eskabide honen bitartez ematen dituzten eta, behin laguntzak ematen direnean, eskabide horien tramitazio edo/eta kudeaketan errazten dituzten izaera pertsonaleko datuak DONOSTIAKO UDALETXEAREN titulartasunekoak den eta DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietateak kudeatzen duen fitxategi batera edo hainbat fitxategira sartuko direla. Alde batetik, enplegu-bilaketarako politika aktibo bat kudeatzeko erabiliko dira, eta, bestalde, DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietatearen zerbitzu eta jarduerak ezagutzera emateko, eskatzaileak, dagokion eskabidean, hala baimentzen duenetan.

Berriaz kontrakoa adierazten den kasuetan salbu, eskatzen diren datuak beharrezkoak dira eskabideei bide emateko. Izaera pertsonaleko datuen titularrak emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren ardura du.

Eskatzaileak beste pertsona batzuen datu pertsonalak ematen baditu, eskatzaile horrek berak datu horiek emateko pertsona horien baimena jaso beharko du.

Datu pertsonalak enplegua eskaintzen duten entitateei eman ahal izango zaizkiela jakinarazi nahi dugu, eta baita, beharrezko denetan, entitate nazional edo/eta europarrei ere bai,

kudeaketan DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietatearekin elkarlanean dabiltzanei edo jarduerak finantzatzen dituztenei.

Halaber, eskatutako laguntzak edo zerbitzuak emateak onuradunen identifikazio-datuak eta jasotako laguntzaren zenbatekoa DONOSTIAKO SUSTAPENA SAren webgunean argitaratu ahal izango direla esan dezake, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo, beharrezko suertatuz gero, dagokion aldizkari ofizialean argitaratzearekin batera.

Interesdunek beren datu pertsonalen sarbide-, zuzentze-, deuseztapen- eta kontrakotasun- eskubideak erabili ahal izango dituzte, DONOSTIA - SAN SEBASTIANEKO UDALETXEKO Udalinfo Zerbitzura idatzia igorrita, Igentea kalea, 1 KP 20003 Donostia helbidera, NAN-aren kopia erantsiz, beren identitatea argi gera dadin.

15. ARTIKULUA AZKEN XEDAPENA.

Indarrean sartzea eta onarpena.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez emango dira aditzera eta berauek argitaratu eta hurrengo egunean egongo dira indarrean.

Eskabideak aurkezteak interesdunek oinarriak guztiz onartzen dituztela esan nahi du.

Ardura salbuestea.

Onuraduna izango da laguntza honen helburu den jardueraren aurreko edo ondorengo jardunek, eta baita jardunak berak zuzenean, eragin ditzakeen kalte pertsonalen edo/eta materialen arduradun bakarra, kontzeptu horiengatik Donostiako Sustapenak ez duelarik inolako ardurarik izango.

16. ARTIKULUA ERREGIMEN JURIDIKOA

Emango diren laguntzak Oinarri hauetako arauen arabera zuzenduko dira eta, modu osagarrian, baita DLLOan eta bere garapenerako Araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuan, uztailaren 21ekoan, agertzen diren arauen arabera ere, zeinaren bidez DLLOaren Araudia onartu zen, DLLO horren baitako kudeaketa-printzipioei dagokienean eta 20. artikuluan erreferentzia egiten zaion informazioari dagokionean eskusiboki, bertako bigarren paragrafoko 3.2 artikuluan xedatzen denaren arabera. Gainera, 2017ko ekitaldirako onartutako Enplegu-sustapenerako tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiak ezarritakoaren arabera ere zuzenduko dira, Lanbide-EEZeko Zuzendari Nagusiak sinatua, 2017ko uztailaren 28ko Ebazpenarekin.

Beste kasu batean, adierazitako DLLOa eta Araudia Oinarri hauek legezko testu horiei berariazko oharrek egiten dizkietenean aplikatuko dira soilik.

Donostian, 2018 ko azaroaren 2an.

Ernesto Gasco
Donostiako Sustapeneko Lehendakariordea